

URTAROEN INGURUKO OHITURAK LH 5-6

2. NEGUAN SUA ETA URA



Tradizioa ezagutzea da ohitura zaharrak gaurko beharretara eta moduetara egokitu ahal izateko lehen urratsa.

HELBURUA

Neguarekin lotutako errituak, sinesmenak, ohiturak eta hizkuntza esamoldeak ezagutzea.



- Ikasleei azalduko zaie Sukilaren edo eguberritako enborraren pertsonifikazioa dela, ziur aski, Olentzeroren jatorria. **Sukila** gabon gauean pizten zen eta sutan mantentzen zen urteberria hasi arte. Piztutako su horrek neguaren amaiera eta urte zaharra adierazten ditu, eta era berean, urte berrian sartzen laguntzen du. Festa horren bueltan Olentzero agertzen da, pertsonaia beldurgarria eta barregarria. Garai batean era askotako panpinez irudikatutzen zen.
- Olentzeroren adibidea erabili gizartearekin batera ohiturak aldatzen direla azaltzeko: lehen haur eta gazteak eske-errondan ibiltzen ziren, orain opariak eroatera joaten gara; lehen norberak edo auzoan irudimenak agindutako panpina egin eta denon artean jaia antolatzen zuten, orain gure jaia antolatu beharrean ikuskizun bihurtutako kalejirak ikustera ateratzen gara ...

- Seguru aski ezagutuko ez duten eta Urdianen gorde den aspaldi-aspaldiko ohituraren eta koplen berri eman: **“ur goiena, ur barrena”**.

Urtezahar gauean, hamabietako kanpaiak entzun eta herriko iturritik “ur berria” edaten dute, gorputza eta arima garbitzeko eta Eguzkia gailenduko dela berresteko. Ur berria edan eta abestu:

[“Ur goiena, ur barrena urte berri egun ona”¹](#)

Izotzetan elurretan
abenduko gau luzeetan
bertze guziak ohean
eta gu gaixuok oinutsetan

Etxe honetan sar dadila
bakearekin osasuna
bakearekin osasuna,
onarekin ondasuna.

Arantzazu zer dakarzu?
Ur goiena, ur barrena,
ur goiena, ur barrena,
urteberri egun ona

Etxe hontako nagusi jaunak
poltsea txintxirrinduna
poltsea txintxirrinduna
zilarrez ezpataduna

Gure baratzean belar ona,
hark botatzen du usai ona
goian goian ilargia,
erdi erdian khabelina.

IRAUPENA

Saio bat

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=7bZ0xkwXNac>